

GIMK lana egiteko gida-lerroak. 2016-17

LANAREN ATALAK EGITEKO GIDA-LERROAK

Sarrera

Lanaren helburu nagusia zein den eta aukeratutako gaia zer ikuspegitatik aztertuko den azaldu behar da. Lanarekin egileak zer jakin nahi duen azaldu behar du, eta zergatik uste duen garrantzitsua dela. Atal honetan, aztertu nahi den arazoarekiko interesa zerk piztu zuen aipa daiteke, gaia aukeratzeko arrazoiak, eta aukeraketa horren justifikazioa. Hau da, aukeratutako gaia lantzeak izan dezakeen garrantzia edo interesa.

Bestetik, komeni da lanaren egitura deskribatzea, eta lana osatzen duten kapituluak labur aipatzea.

Atal honetan, gainera, lanerako metodologia aipatuko da.

Komeni da sarrera **lana amaitzean idaztea**.

Esparru teorikoa

Lanak barne hartzen dituen gaiak nola teorizatzen diren azaldu behar da. Erreferentzia-esparrua eratu behar da, ikerketaren helburuak formulatzeko eta ondorengo azterketa eta eztabaidaren interpretaziorako.

Beharrezkoak dira barne-koherentzia, argudio-garapenerako lerroak, laburbiltzeko gaitasuna, kontzeptuak behar bezala erabiltzea, etab.

Datu iturriak aberatsak izan behar dute. **AIPAMEN GUTXI LEKU ASKOTATIK** egiten badira, hobe.

ITURRI ZIENTIFIKOAK erabili behar dira.

Hipotesiak eta helburuak

Hipotesia bi aldagai edo gehiago erlazionatzen dituen enuntziatu bat da, eta aldagai horiek gida moduan erabiltzen dira datuak biltzeko prozesuan, aldagaietan planteatzen dena egiaztatzeko eta aztertzeko. Ikerketaren garapena zuzenduko duen ideia da.

Helburuek gure lanarekin zer lortu nahi dugun zehazten dute, aldeztetik dakigunaren arabera, gaiari buruz idatzita dagoena, aurreko ikerketen emaitzak eta gure esperientzia aztertu ondoren. Aditzak infinitiboan ematen dira, azterketa edo jakintza-bilaketa adierazteko: deskribatu, arakatu, aztertu, ikertu, ulertu, alderatu, ebaluatu, azaldu, proposatu, etab.

Lanaren metodologia

Atal honetan, lanaren ebidentzia enpirikoa biltzeko zer estrategia eta baliabide erabili diren adierazten da. Gure kasuan, **bigarren mailako datuak erabiliko ditugu**. Metodologia kuantitatiboa testuinguratuko dugu, metodologiako eskuliburuak erabiliz.

Analisia

Lanean planteatutako hipotesi eta helburuen inguruan egiten diren gogoetak eta proposamenak argudiatu behar dira. Atal honetan, lanak ematen duen ebidentzia enpirikoaren inplikazioak eta ondorioak era kritikoan aztertu eta ebaluatzen dira. Esparru teorikoa har badaiteke ere abiapuntutzat,

norberak landutako eta sortutako atal bat izan behar du, eta gogoeta egin eta era arrazoituan azaldu behar da ikerketaren emaitzei buruz egiten den ebaluazioa.

Ondorioak (eta proposamenak)

Lanean ateratako **ondorio** nagusiak identifikatu eta laburbiltzen dira. Azterketa-arloan egin den bideari buruzko gogoeta eta analisi kritikoa jasotzen dute, lortutako emaitza nagusiekin batera. Lanean eginiko proposamenak lotu eta erlazionatu egin behar dira hurbilketa eta ikuspegi teoriko eta metodologikoekin. Hala badagokio, ikerketaren erabilgarritasunaren balantze bat egin behar da, haren muga eta lorpenena.

Atal hau amaitzeko, **proposamenak** egin daitezke; hau da, etorkizuneko ikerketa-ekintza agenda bat planteatu daiteke: noraino iritsi den, lanak etorkizunean zer bide irekiko dituen... etorkizuneko ikerketa edo esku-hartze lerroak zehazteko.

Bibliografia

Informazio esanguratsu eta garrantzitsuaren iturrien bilaketa egingo da, alfabetikoki ordenatua, eta era egokian azalduko da

Eranskinak (aukerakoa)

Lanaren edukiaren osagarri den dokumentazioa (taulak, elkarrizketa-gidoiak...).

ALDERDI OROKORRAK

Alderdi formalak	<p>Itxura atsegina eta estetikoa izan behar du, kontuan izanik: lanaren formatu orokorra, orrialdeen zenbakitzea, letra-tipoa, lerroartea, taulak, irudiak eta grafikoak, etab.</p> <p>Letra-tipoa: Times New Roman</p> <p>Tamaina: 12</p> <p>Testua: bi aldeetan justifikatua. Lerroartea: 1'5. Marjinak: 2,5 cm goian eta behean; 3 cm ezkerrean eta eskuinaldean.</p> <p>Orrikatzea: orrialde-zenbakia adierazi behar da beheko eskuinaldeko angeluan. "Sarrera"-tik aurrera.</p>
Egitura	<p>Azal-orria</p> <p>Aurkibidea (zenbakitua)</p> <p>Sarrera</p> <p>Hipotesia eta helburuak</p> <p>Esparru teorikoa</p> <p>Metodologia</p> <p>Analisia</p> <p>Ondorioak (eta proposamenak) Analisia</p> <p>Bibliografia</p> <p>Eranskinak (aukerakoa)</p> <p>Kapituluek edo atalek ondo bereizita eta zenbakituta egon behar dute.</p>
Hizkuntza eta estiloa	<p>Hizkuntza egokia eta teknikoa; ondo idatzia.</p> <p>Hizkuntza ez sexista.</p>

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

(APA 6 arauak; egileen izen propioak erantsi dira, generoa bereizteko)

Erreferentzia bibliografiko guztiak:

- Testuaren amaieran idatziko dira, inoiz ez orri-oinean.
- Alfabetikoki ordenatuko dira.

LIBURUAK

LIBURUA: Egilea/k (abizena/k eta izena/k). Argitalpen-urtea (parentesien artean). Liburuaren izenburua (letra etzana). Argitalpen-lekua (bi puntu): Argitaletxea.

Colom, Dolores (2011). *El trabajo social sanitario. Los procedimientos, los protocolos y los procesos*.
Bartzelona: UOC.

Roldán, Elena, & García, Teresa (2006). *Políticas de servicios sociales*. Madril: Síntesis.

Úcar, Xavier, & Llena, Asun (Koord.)(2006). *Miradas y diálogos en torno a la acción comunitaria*.
Bartzelona: Graó.

LIBURUETAKO KAPITULUAK

LIBURU-KAPITULUA: Egilea/k (abizena/k eta izena/k). Argitalpen-urtea (parentesien artean). Kapituluaren izenburua. Egilea/k (izena/k eta abizena/k), Liburuaren izenburua (letra etzana)(orrialdeak). Argitalpen-lekua (bi puntu): Argitaletxea.

León, Margarita & Salido, Olga (2013). Las políticas de protección a las familias en perspectiva comparada: divergencias nacionales frente a desafíos compartidos. In Eloísa del Pino & M^a José Rubio (Eds), *Los estados de bienestar en la encrucijada. Políticas sociales en perspectiva comparada* (291.-306. or.). Madril: Tecnos.

ALDIZKARIETAKO ARTIKULUAK

Egilea/k (abizena/k eta izena/k). Argitalpen-urtea (parentesien artean). Artikuluaren izenburua. Aldizkariaren izena (letra etzana, koma), zenbakia eta bolumena (koma), orrialdeak (marratxo batek bereizita).

Fernández, Sergio (2010). Prácticas y profesión en Trabajo Social: relaciones académicas y proceso metodológico. *Cuadernos de Trabajo Social*, 23, 229-246.

BATZARRETAKO TXOSTENAK

Egilea/k (abizena/k eta izena/k). Argitalpen-urtea (parentesien artean). Txostenaren izenburua. Akten izenburua (letra etzana)(orrialdeak). Argitalpen-lekua (bi puntu): Argitaletxea.

Zamanillo, Teresa (2000). El Trabajo Social en la Sociedad de la Incertidumbre. *Gizarte Langintzako ikasleen I Batzarraren Aktak* (111.-117. or.). Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca.

INTERNETETIK ESKURATUTAKO DOKUMENTUAK/TXOSTENAK

Egilea/k (abizena/k eta izena/k). Eskuratzeko data (urtea, hilabetea, eguna). Dokumentuaren edo artikulatuaren izenburua. Aldizkariaren edo antolakuntzaren izena (letra etzana), zenbakia eta bolumena. Erabilgaitako web helbidea.

Anderson, Kate (2012ko ekainaren 3). The challenge of the practice-management. *Social Work Now*, 51. Helbidea: www.cyf.govt.nz/social-work-now-2012.pdf

EGUNKARIETAKO ARTIKULUAK

Egilea(k) (abizena/k eta izena/k). Argitalpeneko data (parentesien artean). Artikuluaren izenburua. Egunkaria (letra etzana), orrialdea.

Pérez, Claudi (2010eko ekainaren 4). El Estado de bienestar va rumbo a la UVI. *El País*, 23. or.

LEGEDIA

Legearen zenbakia, data eta izen ofiziala. Buletin zk., argitalpeneko data, orrialdea/k.

39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Mendeko Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustatzeari buruzkoa. BOE 299 zk., 2006ko abenduaren 15, 44142.-44156. or.

AIPU BIBLIOGRAFIKOAK TESTUAN

BIGARREN MAILAKO INFORMAZIO-ITURRIETATIK JASOTAKOAREN HITZETZKO AIPUAK

40 hitz baino gutxiagoko hitzetan hitzetako aipua, egilea nabarmendu nahi denean:

Ongizate-estatuaren etorkizuneko bilakaerari dagokionez, Morenok (2013) honako hau dio: "gizarte-arloan inbertsioak espero dira, haurren eta gazteen arreta eta zaintzarako" (14. or.).

40 hitz baino gutxiagoko hitzetan hitzetako aipua, testuaren argudioak nabarmendu nahi direnean:

Dirudienez, erreforma gehienek gizarte-dualizazioko prozesuak azkartuko dituzte; are gehiago, herritarrek "gero eta konfiantza txikiagoa dute enplegatzaileek ezarritako pentsio-planetan; aldiz, pentsio publikoak gero eta murriztuzkoak dira, gero eta zailagoak lortzen" (Seeleib-Kaiser *et al.*, 2012, 43. or.).

40 hitz baino gehiagoko hitzetan hitzetako aipua, egilea nabarmendu nahi denean:

Tolerantziaren definizioari dagokionez, Beltránek (2004) honako hau nabarmentzen du:

Tolerantziak, lehenik eta behin, ekintza, ideologia edo sineste bat ez onartzeko arrazoiak egon badaudela suposatzen du. Hala eta guztiz ere, beste era bateko arrazoiak aztertu eta haztatu ondoren, bigarren horiek lehenengoei nagusitzen zaizkie, halako moldez, non jarreraz aldatzeko zio bihurtzen baitira; azken batean, ekintza, ideologia edo sineste hori onartu eta toleratzeko arrazoi bihurtzen dira (180. or.).

40 hitz baino gehiagoko hitzez hitzeko aipua, testuaren argudioak nabarmendu nahi direnean:

Patriarkatuari zilegitasuna kentzeko prozesu honen bidez, emakumeen aurkako bortizkeriaren arazoa azaleratzen eta eztabaidaren erdian jartzen hasi da. Horrek ez du esan nahi arazoa desagertu denik, haren zilegitasuna eztabaidatzen hasi dela baizik.

Emakumeen diskriminazio- eta zapalkuntza-arazoak eta haien aurkako tratu txarrak ez dira desagertu, ezta modu nabarmenean txikitu ere. Pertsonen arteko indarkeria eta tratu txar psikologikoak orokortzen ari dira, gizonen hiragatik (indibiduala eta kolektiboa), hain zuzen ere (Castells, 1988, 203. or.).

AIPU PARAFRASEATUAK: BIGARREN MAILAKO ITURRIETAKO ARGUDIOEN AIPAMENA (EZ HITZETZKOAK)

Argudioen egilea nabarmendu nahi denean:

Desberdintasuna eta desberdintasunak gizarte-ikuspegiarekin duen lotura aztertzeko modua funtsezkoa da ezgaitasuna teorizatzen duten ereduetan. Gaur egun, oraindik, Ferreirak dioen bezala (2008, 144. or.), bizirik diraute gure ideologia kolektiboan sustrai sendoak dituzten ezgaitasunari lotutako auresuposizioek, ezgaitasuna karakterizazio pertsonal edo indibidualtzat –esklusiboki– hartzen dutenak, gizarte-testuinguruaren abstrakzioa egiten duen karakterizaziotzat.

Argudioak nabarmendu nahi direnean:

Ikuspuntu honetatik abiatuta, giza-eskubideen ereduranzko bilakaerak aldaketak eragin ditu gizarte-politikak diseinatzeko moduan. Alde batera utzi nahi dira karitatean oinarritutako laguntza-politikak, eta pertsona ezgaituen duintasuna eta erabateko garapena argi eta garbi bermatuko dituzten gizarte-politiken aldeko hautua egiten da, oinarritzat hartuta eskubide guztien erabilerarako aukeraberdintasuna (De Lorenzo, 2007, 71.-72. or.).

ERABILGARRI IZAN DAITEZKEEN LOKAILUAK

Informazioa gaineratzeko

BEDEREN
BEHINTZAT
BESTALDE
ERE
GAINERA
HALABER
HONEKIN BATERA
HORREZ GAIN
ERA BEREAN
GUTXIENEZ

Kontrastea edo aurkaritza

ALDIZ
AITZITIK
BAINA
BERRIZ
DENA DELA/DENA DEN
HALA ERE
HALA ETA GUZTIZ ERE
HAATIK/HORREGATIK
ALABAINA
EDONOLA ERE
EDOZEIN MODUTAN ERE
EDOZEIN KASUTAN ERE
ORDEA
OSTERA
AITZITIK
ALDIZ

Kausa- Ondorioa

BERAZ
ONDORIOZ
HORTAZ
HORI DELA ETA
IZAN ERE
ORDUAN
ZEREN
ZERGATIK

Adibide ematea

ADIBIDEZ
ESATE BATERAKO
ALEGIA
KASU
HAU DA
HOTS
BESTELA ESANDA
HORI ARGITZEKO

Distributiboak

BATETIK...BESTETIK
ALDE BATETIK...BESTALDETIK

Konparaketa

ERA BEREAN...
MODU BEREAN...

Denbora

LEHEN...
ANTZINEAN...
ALDI BEREAN...
HONEZ GERO, HORREZ
GERO, HAREZ GERO...
LEHENIK, BIGARRENIK...
LEHENENGO ETA BEHIN...
LEHENIK ETA BEHIN...

Laburpena

AZKENIK...
AZKEN BATEAN...
LABUR ESANDA...
HITZ GUTXITAN...

Amaiera ematekoak

BUKATU BAINO LEHEN...
AURREKO GUZTIAK LABURBILDUZ...
LABURBILDUZ...
AZKENIK...
BUKATZEKO, HITZ BI...